



FAIRPHONE, MUGIKOR BEREZI BAT

GatazkariK gabeko teknologia lortzeko aurkitutako proposamenen artean, oso interesgarria den bat nabarmendu behar da; Amsterdamgo pertsona-talde baten ideiak izan ziren abiapuntua. Haien helburua, gai honetan herritarrei benetako alternatibak eskaintzea da. Gizarte zibil antolatuko talde hori enpresa bilakatu da, eta 2013an, crowdfundingaz baliatuz, estandar etikoak eta giza eskubideak errespetatuz egindako telefono bat merkaturatu zuten. Fairphone du izena mugikorrak (bidezko mugikor edo telefonoa), eta bere ezaugarriei buruzko informazioa zabaltzen dizuegu fitxa honetan.

Aipatutako estandar etikoak lortzeko, mugikorraren bizialdiaren une desberdinei erreparatu diete. Ageri diren puntu beltzei erantzun nahi izan diete, eta horietako bakoitzean konpontzeko ahalegina egin dute ondoren agertzen den bezala.

Landu duten lehen puntu beltza mineralen erazketa da.

Nahiz eta enpresa batzuek erabaki duten mineralik ez erostea Kongoko Errepublika Demokratikoan, gatazka-mineralik ez erosteko, Fairphonek erabaki du KEDn erosten eta inbertitzen jarraitzea. Bertako ekonomiaren alde egiten jarraitzeko, "Conflict-Free Tin Initiative (CFTI)", (Hegoaldeko Kivun era garbian eztainua ateratzeko ekimena) eta "Solutions for Hope Project", (Katangan era garbian tantalioa erazteko ekimena) aukeratu dituzte. Honekin, bertako ekonomiaren alde egiten jarraitzeaz batera, bermatzen dute erazketa talde armatuen esku ez geratzea eta horiek dirua armak erosteko ez erabiltzea.

Fairphoneren politikan zehazten den bezala, bidezko produktuen alde egiten dute, ardatza pertsonak dira, eta etekinak familiei –eta ez talde armatuei– laguntzeko erabiltzen dira.

Bigarren puntu beltza diseinuaren fasean dago.

Fairphonek diseinu irekia egin nahi izan du, iraunkortasun handiagoa izateko. Ohiko terminalen alternatiba egokia da, horiek zaharkitzapen programatuaren arauekin diseinatu eta fabrikatzen baitira. Gailua konpondu behar izanez gero, haren zati jakin batzuk erosteko aukera ere ematen du; hala, apurtzen diren zatiak aldatzeko aukera izango da, gailu osoa aldatu beharrik izan gabe. Diseinu-fasean are hobekuntza gehiago egin nahian, lan horretan parte hartzen duen komunitate bat sortzen ari dira, stakeholder interesdunak prozesuan parte har dezaten.

Hirugarren puntu beltza ekoizpenari dagokio.

Erazketaren kasuan bezala, Fairphonek erabaki du ez alde egitea produktuak orain arte ekoizten ziren herrialdeetatik; horrenbestez, akordioak sinatu ditu enpresekin, langileek bermatuta izan ditzaten laneko baldintza seguruak, soldata duinak eta ordezkariak sindikala. Txinako enpresa ekoizlearekin eta langileekin buruz buru, ongizate-funts bat ezarri dute, arlo honetan hobetu daitezkeen gaiak lantzeko.

Azken puntu beltza erabilera eta mugikorraren bizitzaren amaiera fasea da.

Piezak erosi eta gailuak konpontzeko aukera emateaz gain (hala, gailuaren bizitza luzatzen da), proposatzen dute eta erabiltzaileak animatzen dituzte mugikorrek ireki ditzaten konponketak beren kabuz egiteko eta, hala, produktuaren balio-bizitza luzatu ahal izateko.

Bestetik, e-waste edo zabor elektronikoaren kudeaketaren gaiari erreparatuz, Ghanako erakundeekin lankidetzan ari dira. Elkarlan honen bitartez, bermatu nahi dute, zabor elektroniko hori behar bezala birziklatuko dela eta horretan lan egiten duten pertsonen osasuna zainduko dela.

ARIKETA-PROPOSAMENA

DESBERDINTASUNEN JOKOA



Helburuak: Mugikor baten bizi-zikloa aztertzea eta "bidezko" mugikor batekin alderatzea.

Materialak:

- Gatazka-mineralak lantzen dituen Edukalboan (ikus loturak hurrengo atalean) eta irudi-katearen proposamenerako erantsitako PDFa:

<http://www.alboan.org/edukalboan/erabiltzen-den.pdf> eta Fairphoneren webgunea.

- Errotuladorak

- Kartoi meheak

Garapena: Saioaren dinamizazioleak 3 edo 4 laguneko taldeak egingo ditu. Talde bakoitzari kartoi mehe bat edo papelografo bat emango dio, eta bi marrazki egiteko eskatuko dio.

Lehengoa, "ohiko" telefono mugikor baten balio-bizitza irudikatu beharko dute taldeek. Han nahi dituzten prozesuaren faseak sar ditzakete; fase guztiei edo bakarrari erreparatuz.

Bigarren marrazkian, Fairphonerekin eskatuko zaie gauza bera egin dezaten.

Azkenean, gela kartel/marrazki horiekin dekoratuko da, eta taldeei eskatuko zaie markatzeko bi marrazkien artean, hots, ohiko mugikorraren marrazkiaren eta Fairphone mugikorraren marrazkiaren artean, aurkitu dituzten desberdintasunak.

INFORMAZIO GEHIAGO ESKURATZEKO BITARTEKOAK

 Fairphone webgunea: www.fairphone.com

 Edukalboan 9. zk. Gatazka Mineralak:

http://www.educacion.alboan.org/system/card_eus/2456/original/edukalboan09_euskWEB.pdf?1401452962

 El Pais-en blogetako iritzi-artikulu bat:

<http://blogs.elpais.com/alterconsumismo/2014/02/mi-telefono-es-un-movil-justo.html>

 ALBOANen kanpaina: www.tecnologia Libre de conflicto.org

Fairphone prozesuko kolaboratzaileak:

 e-waste: <http://closingtheloop.eu/>

 Erauzketa: <http://solutions-network.org/site-cfti/>

 Ekoizpena: <http://www.somo.nl/>



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa
www.alboan.org

-en proiektu bat



lortzeagatik

www.gatazkarikgabekoteknologia.org

